

PRENTSA-OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoak hiritarrekin ospatuko du XX. Urteurrena

Frank Gehry-ren eraikinaren gainean egingo den Reflections mapping-ikuskizun handiak keinu egingo die Museoaren Bildumako lan enblematikoei

Urriaren 11tik eta 14a bitartean, Frank Gehryk diseinaturiko Guggenheim Bilbao Museoaren kanpoaldeko azal distiratsua zentzumen-esperientzia original bilakatuko da *Reflections* ikuskizunean. 59 Productions etxeak burutuko du proiektzio ikusgarria, Museoak bere XX. Urteurrena hiriko biztanleekin batera ospatzeko sortua.

20 minutuko iraupena izango ditu ikuskizunak, eta musika, argia eta irudiak uztartzen ditu; Bilboko Udaletxearen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Iberdrolaren babesarekin, *Reflections* lau gautan emango da saio jarraituetan, eta, Museoaren XX. Urteurreneko ospakizunen artean garrantzitsuenetakoa izanik, 200.000 ikusle baino gehiago erakarriko dituela espero da.

Museoaren eraikina inguratzen duten artelan garrantzitsuenetako batzuk ere eraldaketaren parte izango dira. Metala islatzailea izango da eta esfera-formak izango ditu, Anish Kapoor-en *Zuhaitz garaia eta begia* lanean bezala; Louise Bourgeois-en *Ama* armiarma erraldoiak bere itzal luzea labainduko du eraikinean zehar; eta, Jeff Koons-en *Puppy* koloretsuak, Museoko azalean irekiko diren loreak barreiatuko ditu.

Honakoa adierazi du Jeff Koons artistak: “Nire ustetan, *Reflections* ikuskizunak erotik eraldatuko du Guggenheim Bilbao Museoaren eraikin ikonikoa, ehunka testura, kolore eta istorioren bitartez. Gustuko dut nire lana Museo osoa estaltzen ikustea. Bata bestearenganako omenaldi baten parekoa da”.

Azken belaunaldiko teknologia erabilia, *Reflections* ikuskizunak iparraldeari begira dauden Museoaren fatxadak eraldatu eta mihise bilakatuko ditu; horien gainean Bilboko kultura-eraldaketaren bi hamarkadak ospatzeko bereziki sortutako animazioak ikusiko dira. Publikoa eraikinaren jaiotzaren testigu izango da, jada ikonikoa den Gehryren esku hutsezko zirriborroak irudikatua, eta ezinezko kurben kalkulu-prozesua ikusi ahal izango du, (orduan) berritzailea zen eta industria aeronautikoan erabiltzen zen Catia informatika-programak garatutako titaniozko azalaren bariazioekin batera.

Leo Warner 59 Productions etxeko zuzendari eta fundatzaileak adierazi duenez: “*Reflections* ikuskizunarekin, Guggenheim Bilbao Museoak urtebeteko kamera azkarreko bidaiari ekingo dio eguraldi eta urtarotetan zehar; lainoak zitzu bizian igaro eta egunsenti leunak titaniozko xafletan islatuko dira; Museoa eguzki-galga baten esku edo ekaitz elektriko indartsuek zigortua agertuko da. Eraikinaren kurba eta aurpegiak organismo bizi bilakatuko dira: azala arrain-ezkata, txori-luma, alde kristalino eta metal herdoildu eta degradatu bilakatuko da, partikula digitaletan “desintegratu” baino lehen, musikak informatikaren garaira eramango gaituen bitartean.

Gehryk zera esan zuen behin: “zorizko kurbak argia atzemateko diseinatuta daude”. *Reflections* ikuskizunak hitz horiek berreskuratuko ditu, eta aitzakia gisa baliatuko ditu Museoaren historia argi-itzalen jolas batean aztertzeko, publikoari bere inguru geografikoa erakutsita.

Juan Ignacio Vidarte Guggenheim Bilbao Museoko zuzendari nagusiaren hitzetan: “Guretzat oso garrantzitsua zen gure XX. Urteurrena ospatzeko berealdiko zerbait asmatzea eta gure ingurune gertuko pertsonekin partekatu ahal izatea, asko baitaukagu beraiei eskertzeko. Denon artean egin dugu posible Bilboren eraldaketa izugarria, eta mundu guztiari erakutsi diogu arteak dena aldatzeko gaitasuna duela. *Reflections* esperientzia errepikaezin eta ahaztezina izango da”.

Editoreentzako oharra

Reflections. Guggenheim Bilbao Museoaren XX. Urteurrenaren ospakizuna

Datak: 2017ko urriak 11, 12, 13 eta 14

Ordutegia: 20:30–23:00

Iraupena: 20 minutu inguru

Doako sarrera

Guggenheim Bilbao Museoa

2017ko urrian Guggenheim Bilbao Museoa beste urtebete ospatuko du, 20 urte igaro direnean 1997ko urriaren 19an lehen aldiz bere ateak publikoari ireki zizkionetik. Euskal instituzioen eta Solomon R. Guggenheim Fundazioaren arteko elkarlanaren emaitza da ekimen aurrendari hau. Museoa proiektu errepikaezin eta bikain baten emaitza da, nazioarteko bokazioa eta arte-konpromiso sendoa dauzkana.

Inauguraziotik hogeitau urte igaro diren honetan, Guggenheim Bilbao Museoa hiriaren biztanleriaren hiru aldiz halakoa den bisitari-kopurua erakartzen jarraitzen du urtez urte, bere arte-programazioen asmo handiko izaera dinamikoari esker. Urtean zenbaitetan, Museoak eraldatu egiten ditu bere espazioak, bisitarien memorian geldituko diren esperientzia errepikaezinak eskaintzeko: kalitate handiko programazioa integratzen duten nazioarteko erakusketa eta artistak, muga geografikorik ezarri gabe, eta, era berean, artelanen aurkezpenean identitate propioa marrazten dutenak.

Museoa berezkoa du izpiritu ekintzailea hogeitau urte hauetan aurkeztu diren 165 erakusketetan islatu da —aldi baterako 95 erakusketa eta Bilduma Iraunkorrek 70 aurkezpen—, erakusketa berri bat inauguratu dezake gutxi gorabehera sei asterik behin. Horiei esker, Museoak ia 20 milioi bisitari erakarri ditu Bilbora, aurrez turismo-tradiziorik ez zeukan hiri batera. Bisitari horietatik bi heren beste herrialde batzuetatik etorri dira.

Guggenheim Bilbao Museoa Bilboko kultura-garapenari, hiri-berritzeari, susperraldi ekonomikoari eta hiriko arkitektura-zaharberitzeari egindako ekarpena “Bilbo efektua” bezala ezagutzen da egun mundu osoan.

2017ko bigarren seihilekoan, honako erakusketez gozatu ahal izango dute bisitariek: *Bill Viola: atzera begirakoa*, *Georg Baselitz. Heroiak*, *Anni Albers: ikusmena ukitu*, *David Hockney: 82 erretratu eta natura hil 1* eta *Artea eta espazioa*.

59 Productions

59 Productions etxeak sari ugari jaso ditu. Taldea osatzen duten artistek honakoen ardura izan dute, besteak beste: Londreseko 2012. urteko Joko Olinpikoetako inaugurazio-ekitaldiko bideoaren diseinua; hainbat herrialdetan harrera paregabea izan duen ikuskizuna *War Horse*; *David Bowie Is* erakusketa txalotua; eta, baita, Christopher Wheeldon koreografoak burutu duen *Amerikar bat Parisen* egokitzapenaren ikus-entzunezko diseinua ere, zeinarengatik Tony sari bat lortu zuten 2015. urtean.

Leo Warner, Mark Grimmer, Lysander Ashton eta Richard Slaney-ren zuzendaritzapean, antzerki-espektakuluen eta zuzeneko diseinuan espezializatutako konpainia da 59 Productions. Lan-taldeak diziplina aniztetako proiektuak gauzatzeko ideia artistikoak eta teknikak sortzen ditu, arkitektura-monumentuetan egindako proiektioetatik hasita, errealitate birtualeko esperientziataraino, ekitaldiekin, antzerki-diseinuarekin eta aholkularitza teknikoarekin batera.

Antzerkiaren esparruan hamar urtetan jorraturiko esperientziaren ondoren, eta mundu mailako areto garrantzitsuenekin izandako elkarlanari esker —Londreseko National Theatre eta Royal Opera House, New Yorkeko Metropolitan Opera edo Salzburg Festival—, 59 Productions konpainiak, gainera, oihartzun handia lortu du azken urteetan artelan publikoen sorkuntza ikusgarriagatik, eta baita munduko eraikin esanguratsuenetariko batzuetan egindako proiektioengatik ere: Sydney Opera House-n, Edinburgoko Gazteluan, Hampton Court Palace-n edo Nazio Batuen New Yorkeko egoitzan, kasu. 2017an, 59 Productions taldeak antzerki-espektakulu propio baten ekoizpen globalari ekin dio, Paul Austerren *Kristalezko hiria* eleberrian oinarrituta. “Behar-beharrezko” ikuskizuna (*Daily Telegraph*), “ikus-entzunezko diseinu aparta duena” (*The Independent*); HOME Manchester eta Lyric Hammersmith aretoetan antzeztu da.

The Harmonium Project and *Standard Life Opening Event: Deep Time* ikuskizunekin aparteko arrakasta izan ostean, 59 Productions 2017ko abuztuan itzuli zen *Bloom* ikuskizunarekin, Edinburgh International Festival jaialdiaren 70. urteurrena ospatzeko ekitaldiarekin, alegia; izan ere, 2018 arte jaialdiko Artista Elkartuak izango dira.

Gaur egun martxan dauzkaten proiektuen artean, honakoak aipa litezke: Oslo (Lincoln Center & National Theatre), *The (R)evolution of Steve Jobs* (Santa Fe Opera), *Marnie* (The Met Opera & ENO), eta *A Perfect Harmony* (2017ko urrian Washington’s Freer|Sackler museoak berriz zabaltzen direla ospatzeko asteburuan pieza zentrala izateko enkargatu dutena).

59productions.co.uk

Bilbo, 2017ko irailak 22